

PRENTSA-OHARRA

Alkatea 2018ko txupinazoa jaurtitzeko lau hautagaitzetako ordezkariekin bildu da, eta hautagaia aukeratzeko herri-bozketa ostegunean amaituko da

Rastrojo; Motxila 21; Artearen Adiskideak bere mendeurrenean; eta Chrysallis Nafarroa dira lehiakideak, eta erabakiaren berri ostiralean emanen da

Iruñeko alkate Joseba Asironek harrera egin die gaur goizean aurtengo txupinazoa jaurtitzeko lau hautagaitzen ordezkari. Hautagaitza guztiak Sanferminetako Mahaiko elkarteek proposatu dituzte, eta heldu den ostegunean amaitzekoa den herri-bozketan ari dira lehiatzen. Ondoz ondoko hirugarren urtez, alkateak herritarren esku utzi du bere ahalmena ohore horren gainean erabakia hartzeko, eta izendatze hori parte-hartze publikoko sistema baten menpe utzi du.

Alkatea gaur eguerdian bildu da Jose Miguel Araiz “Rastrojo” berarekin, zeina Alberto Pérez, Humberto de Miguel eta Francisco Iriarterekin batera etorri baita, bere hautagaitzaren izenean; Motxila 21 taldearen izenean, Andoni Cilveti eta Javier zein Ibai Ganuza etorri dira; Artearen Adiskideak elkartearen izenean, Óscar Castillejo eta Juan José Sarasibar; eta Chrysallis Nafarroaren izenean, Mikele Grande eta Roberto Itoiz.

Proposatutako hautagaitzek badute beren meritua jasotzen dituen memoriaren bermea, hau da, proposamena egin duen erakunde bakoitzak egiaztatu du hautagaiek Iruñeari egin dioten ekarpena arlo sozial, akademiko zientifiko edo kulturean. Lau proposamen lehiatzen dira. Rastrojo izenaz ezaguna den Miguel Araizena da bat, eta haren hautagaitzak aditzera ematen du unaiei zenbait belaunaldik Iruñeko entzierroetan egindako lan kolektiboa, egunez egun lasterketaren funtzionamendua ordenatzen eta lasterkariak babesten. Artearen Adiskideak elkarteak da beste hautagaitzetako bat, eta hiriko kultur musikaren parte izaki, mende bat bete du 2018an ospakizun mota orotan parte hartzen eta beste musika-taldeak harrobi izaten. Hirugarren hautagaia Motxila 21 da, Nafarroako Down sindromearen elkarteko musika taldea, zeinak 2005az geroztik lanean dihardu desgaitasuna gizarteratzeko garrantzia publikoki erakusten, kasu honetan musikaren bidez. Laugarren eta azken hautagaia Chrysallis Nafarroa da, adingabe transexualen familien elkarteak; haur eta nerabe transexualen gizarteratzearen alde egiten du lan, beren eskubideak defendatzen ditu eta baliabideak sortzen ditu, hori guztia, gainera, haien ikusgarritasuna lagunduta.





Lau horietako batek aukera izango du heldu den uztailaren 6an Udaletxeko hirugarren solairuko Erdiko balkoitik oihukatzeko dagoeneko finkatuta dagoen esaldia – *Pamplonesas, pamploneses, ¡Viva San Fermín! Iruindarrak, ¡Gora San Fermín!*– eta jaiei hasiera ematen dien suziria pizteko.

Bozketaren emaitza, ostiralean

Ekainaren 21era arte, egun hori barne, herritarrek aukera dute hiru bide desberdinen bidez ireki den bozketan parte hartzeko. Botoa emateko, Iruñean erroldatuta egon behar da eta 16 urtetik gora eduki, bozketa-prozesuan identifikazio-datuak eskatzen dira eta.

Interesdunek botoa eman dezakete Civiox sareko zentroetan xede horretarako paratu diren hautetsontzietan, 010 Herritarren Arreta Telefonoan edo www.pamplona.es zein www.sanferminoficial.com webguneetan.

Botazioa hilaren 20ko 14:00etan itxiko da zortzi Civioxetan; Interneten aldiz, 21ean egun osoz eman ahalko da botoa; eta 010ean, 19:00ak arte. Boto gehien jasotzen dituen pertsona fisiko edo erakundearen izena heldu den ekainaren 22an jakinaraziko da, ostiralarekin, agerraldi publiko batean. Bi proposamen irabazleren edo gehiagoren arteko berdinketarik gertatuz gero, elkarrekin eta batera jaurti dezatela proposatuko du alkateak.

Iruñean, 2018ko ekainaren 18an

